



**GIPUZKOAKO JUBENIL**  
**TXAPELKETA**

**LEHIAKETA-ARAUDIA**

## **I.- LEHIAKETA-EGUNAK**

Lehiaketa hau aurtengo denboraldian egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegi ofizialari jarraituz.

Euskal Federazioaren Txapelketan sartzeko faserako, federazio horrek ezarritako egutegia hartuko da kontuan.

## **II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK**

2024-2025 denboraldiko lehiaketan parte hartuko duten taldeek Gipuzkoako Txapelketako fase desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute.

2024-2025 denboraldiko lehiaketan parte hartuko duten taldeen zerrenda klubei jakinaraziko zaie kategoria horretan izena emateko ezarritako epea amaitutakoan.

## **III.- LEHIAKETA-FORMULA**

Lehiaketa-formula:

Izena eman duten talde-kopuruaren arabera, honako irizpide hauek ezarriko dira:

**Hogei talde baino gutxiago** – Lehen fasean, partida bakarrera jokatuko duten x taldeko hiru multzo egongo dira. Multzo bakoitzetik 2 talde sailkatuko dira. Bigarren fasean, bi partidatara jokatuko duten x taldeko hiru multzo osatuko dira.

**Hogei talde baino gehiago** – Lehen fasean, xx taldez osatutako bi multzo egongo dira, eta partida bakarrera jokatuko dute. Multzo bakoitzetik 3 talde sailkatuko dira. Bigarren fasean, partida bakarrera jokatuko duten xx taldeko hiru multzo osatuko dira.

**Txapelketaren azken sailkapen horrekin zehaztuko da postuaren arabera lortutako puntuazioa; puntuazio horrekin eta kadete mailako taldearen puntuazioarekin erabakiko da zein klub igoko den 2025-26ko Euskal Ligara.**

**Puntuetan berdinketa egonez gero, KADETE taldeko azken sailkapenak ebatziko du egoera.**

## **IV.- NORGEHIAGOKEN EGUNAK ETA ORDUTEGIAK**

Txapelketako partida guztiak Egutegi Ofizialean aurreikusitako egunetan jokatuko dira, ezinbesteko arrazoiengatik edo Diziplina Batzordeak hala erabakita atzeratzen direnak izan ezik.

Partidak programatuta egongo dira, eta ordutegia eta data aldatzeko aukera izango dute, Lehiaketa Araudi Orokorrak 3.5 atalean adierazitakoaren arabera. Diziplina Batzordeak arau hori betetzen dela eta 3.10 atalean aurreikusitako zehapenak aplikatzearen direla bermatuko du, eta horren erantzule izango da.

## **V.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK**

Jubenil mailako jokalaritzat hartuko dira **2007 eta 2008 urteetan jaiotakoak eta behar bezala tramitatutako federazio-lizentzia dutenak.**

Talde bakoitzak **gehienez 23 jokalaria fitxatu ahal izango ditu, eta gutxienez 12.** Gutxieneko edo gehieneko kupoen osieran edozein anomalia **GEFko Diziiplina Batzordeak onartu beharko du** lehiaketa hasi aurretik.

Taldea osa dezaketen 23 jokalarien artean, **lau plaza klub bereko 2. urteko kadete jokalarientzat (2009an jaiotakoentzat) gorde ahal izango dira.** Plaza horiek ez dira izendunak izango, eta partida bakoitzean gehienez lau lagunek bete ahalko dituzte.

Horiek guztiak **aldez aurretik baimenduta** egon beharko dira, Lehiaketa Araudi Orokorren 2.2 atalean adierazitakoaren arabera; berariazko baimenik gabe, jokalaria-zerrenda BIDEGABEA izango da.

Goragoko mailarako BAIMENDUTA dauden jokalariek (bigarren urteko kadeteak, 2009koak) ez dute euren jatorrizko lehiaketan parte hartzeko eskubidea galduko, baina **ezin izango dute egun berean jokatu; bai, ordea, jardunaldi berean,** bi kategoria desberdinetan. Azaldutako guztia Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak antolatutako txapelketei dagokie.

### **Torneoak eta kopak:**

**Torneo eta kopetan, talde guztiek zortzi (8) jokalaria kadete baimendun eduki ahal izango dituzte jokalaria-zerrendan,** ez dira izendunak izango eta jardunaldi bakoitzeko partida batean jokatu ahalko dute.

## **VI.- ENTRENATZAILEAK, ORDEZKARIAK ETA OFIZIALAK**

Talde guztiak nahitaez inskribatu behar dira aktan, eta partida guztietan entrenatzailea edo entrenatzaile-laguntzailea eduki beharko dute (ONARTUTAKO TITULUDUNA).

**Talde batek Foru Aldundiak izapidetutako lizentzia erabiltzen badu, eskatutako titulazioa duela bermatu beharko du; hori egin ezean, jokalaria-zerrenda bidegabea izango da.**

Halaber, ZELAIKO ORDEZKARI baten presentzia fisikoa eduki beharko dute antolatzea egokitzen zaien norgehiagoketan, eta aktan inskribatu beharko dute. Betebehar horiek bete ezean, GEFko Partida eta Lehiaketa Araudiak zehaztutako zehapena jasoko du.

## **VII.- XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Gipuzkoako Jubenil Ligako arau espezifiko hauek **OHIKO BATZARRAK** onartutako FEDERAZIOAREN TXAPELKETA ARAUDI OROKORREAN adierazitakoarekin osatuko dira.